

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1995eko urriak 11 • 84.zka. •



J.R. Arana Memoriala

Mendigoizaleak bueltatu dira

Andres eta lagoba maltzaga Urbinan

Akordeoi orkestrak momentu onean





Ez dio Haziendari ordaintzen




Haziendari ordaintzen dio


Ez da bidezkoa betikoak ordaintzen ibili behar izatea. Errentaren gaineko Aitorpena behar den bezala egin nahi izanez gero, baina zergei uko eginez, zatoz Euskadiko Kutxara. Abantaila fiskal handiak lortzeko, dirua aurrezteko formularik erraz, seguru eta errentagarriena bilatzen lagunduko dizugu. Zatoz ahalik eta azkarren. Horrela, zure hurrengo Aitorpenak bukaera eztsua izango du.



**Abantzila fiskaleko  
Eperako aurrezkoa**

  
**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**





## Udazkenak badu eraginik zugaran?

Cesar Benito  
(Ikaslea)

Udazkena gustatzen zait, bere enkantua dauka. Depresiorik eta aldaketa haundirik ez dit eragiten.

Ainhoa Izurrategi  
(Ikaslea)

Bai, klaseak hasten dira eta oporrak bukatu direnez jendea tristeago egoten da. Ni neu ere tristeago egoten naiz.

Edurne Isasmendi  
(Ikaslea)

Azterketa garaia da eta hau ez da ona. Segituan iluntzen du eta hau tristeagoa da.

Jose Ignacio Urkiola  
(Langilea)

Udazkenak ez du inolako eraginik nigan. Egia esan, urtaro hau asko gustatzen zait. Udan baino tenperatuta hobea egiten du eta paisaia polita da.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



## ESKUTITZAK

## Santakurtz kalearen istea

Atxabaltarrok agur:

Honen bidez jakinarazten dizuegu, Udal honek, Santakurtz kaleko itxidura sistema aldatzeko asmoa duela, eskola ordutegian trafikoa moztuta egoten den Kurtzebarri Eskoletako zatian.

Aurrikusitako aldaketa, eskoletako ikasleen sarbidearen parean, kalea istea litzateke, hau da, HEGO MENDEBALDEKO eskinan. Itxidura hau denboraldiko finkaketa izango duten posteen bidez egingo da, eta IPAR-EKIALDEKO eskinan gaur egun ezarrita dagoen itxidura kendu egingo litzateke. Era berean seinale bat ezarriko da, Santakurtz-Industrialdea norabidean.

Aldaketa honek ez du gaur egungo iste ordutegia aldatzen, ez eta ere dauden aparkaleku publikoen eskolorduz kanpoko erabilera aukera.

Aretxabaletako Udala.

Azken egunotan behar den moduan identifikatu gabeko karta batzuk jaso ditugu. Gure aldetik ez dugu argitaratzeko inongo arazorik, baina karta guztiak identifikatuta etorri beharko dute, izena eta telefonoa adierazita. Argitaratzeko orduan, gaitzizen edo inizialez argitaratu daitezke, gura duzuen moduan.

Aretxagazeta





## Haurren egunean inguruko herrietatik hurbildu ziren gaztetxoak

## Gripearen aurkako kanpaina hasi da

Osakidetzak, urteroko gripearen aurkako kanpaina hasi du. Irailaren 18an zabaldu, eta urriaren 31 arte luzatuko da epea.

Kanpaina, gaixotasun kronikoren bat dutenei, eta 65 urtetik gorakoei zuzenduta dago bereziki. Egia esan, aurrean aipatutako bi kasu hauetan gripea harrapatzeak ondorio larriak ekar ditzake eta ez bakarrik ohikoa den moduan, ondorez txiki bat.

### Arriskuan dauden taldeak

Gripeak edozein lagunengan eragin dezake ondorio larriak ekarri barik. Baina badaude gripea hartu eta nolabaiteko arriskua izan dezaketen taldeak ere. Horregatik, azken hauei txertoa hartzea gomendatzen zaie. Arriskua duten talde hoiek hauexek izango lirateke:

Alde batetik, aire-fluxuaren oztopo kronikoa daukatenak, diabetisa, gibekeko gaixotasun kronikoa, giltzurrunetako gaixotasun kronikoa, edo bestelako gaixotasun kronikoak dituztenak.

Bestetik, 65 urtetik gorakoak.

Hauetz gain, goian aipatutako bi talde hauei txertoa jartzen aritu behar diren eta gripea transmititu diezaieketen taldeek ere txertoa jarri behar dute. Hoiengan artean egongo dira, ardura tinkoen unitateetan aritzen diren langileak, dialisi unitateetan dabilzanak, Onkologian, Neumologian nahiz zaharren etxeetan aritzen diren osasun langileak ere.

Beraz, txertoa hartu gura duzuen atxabaltarrok Osasun Zentrura joan behar duzue. Urriaren bukaera arte epea zabalik dago eta ordutegia 11,30etatik 12etara bitartekoa da.



200 dantzaritik gora bildu ziren haurren egunean

200 bat dantzari inguru bildu ziren domekan Atxabaltan ospatu zen haurren egunean. Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Oñati, Antzuola, Azkoiti eta Sorluzetik etorritako dantzariak izan ziren. Goizean hiru taldetan banatuta herriko leku desberdinetan dantzatu zuten. Eguerdian, herriko famili eta Elkartetara joan ziren bazkaltzera; familiekin eta Elkarrekin ondo erantzun zuten dantzariak hartzeko orduan. Arratsaldeko 5,30etan alardea egin zen plazan eta talde guztiek batera dantzatu zuten. Egunari bukaera Larrin dantzarekin eman zioten.



## GARAGE NORTE S.L.


Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

## BASTER-ALDE JATETXEA



SASOIKO JAKIAK  
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

## CONSTRULAN ARQUERO ANAIK

Indusketa eta  
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11

Tfno eta faxa: 79 01 51

ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78

Arexabaleta





Fernanda de Andres eta Julian Elorzak omenaldia jaso zuten jubilatuen egunean

## 25 urte bete zituen jubilatuen egunak

1970. urtean ospatu zen lehen aldiz Aretxabaletan jubilatuen eguna. Orduko kontuak aspaldikoak badira ere badago akta bat egun hartako xehe-tasunak jasotzen dituen. Urte hartan, Murualde eta Uratz-alde Elkartek, UDAk eta udaletxeko langile batzuk antolatu zuten eguna. Orduan ere, San Migel egunez irailaren 29an ospatu zen baina bazkaria egin beharrean afari-tarako bildu ziren jubilatuen Taberna-Berri jatetxean. Oparirik ere izan

zuten, gizonezkoek, aterkin bana eta puro kaja bat eta emakumezkoek, drogeriako estutxe bat eta bonboiak. Honez gain, gaixorik zeuden eta afarira joan ezin izan zuten jubilatuz guztiei ere opari bana egin zitzaion. Haiek ziren garaiak, haiek.

Egun honek eragingo zituen gastuei aurre egiteko barriz, industrietara, dendetara eta herriko elkarteetara jo zen. Guzti hauek emandako diruari esker, gastu guztiei aurre egin ahal izan zen.

Afarian, orduko alkatea Ignazio Astiasaran, Demetrio txistularia, Iparragirre eta San Migel bertsolariak eta Gardoki akordeoijolea egon ziren.

### Aurtengo jubilatuen eguna

Udaletxeko gizarte zerbitzuak antolatu zuen jubilatuen egunera, 300 bat lagun bildu zen. Omenaldi berezia egin zitzaion Fernanda de Andres, 90 urtetako emakumeari, eta Julian Elorza, 94 urtetako jubilatuari. Omenaldiaren arrazoia, bi jubilatuz hauek 1970. urtean antolatu zen lehen jubilatuz egunean ere parte hartu izana da.

Jubilatu guztiek eskuko labana bana jaso zuten oparizat. Honez gain, emakumezkoek, painuelo eta figura bana eta gizonezkoek, purua.

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak eskerrak ematen dizkio Ortzadar Atsedean taldeari egun honetan eman zuen laguntzagatik.

## Jubilatuentzako bidaiak

Aurten ere INSERSOK zenbait bidaiak antolatu ditu adineko pertsoneri zuzenduta. Bidaiak hauek joateko betebeharreko baldintzak honako hauek ditugu: 65 urte beteta izatea, edo Gizarte Segurantzaren sistemako jubilazio edo balioezintasuneko pentsioduna izatea, edo 60 urte beteta dituen alarguntzako pentsioduna izatea; gaixotasun infekzio-kutsagarririk ez izatea eta norbere kabuz baliatzea.

Antolatutako bidaien artean kultur zirkuitoak daude. Castilla eta Leon ezagutzeko zirkuitoak 14.000 pezeta balio du eta sei egunetako iraupena du. Kanariar irletara antolatu duten bidaiak barriz, 25.100 pezeta balio du eta 8 egunetako iraupena du. Aipatutako bidaiaren batera joan gura izan ezker Udaletxeko Gizarte Zerbitzura jo besterik ez duzue egin behar. Hori bai apuntatzeko azken epea urriaren 15a da.

### JOSU HARATEGIA

URDAITEGIA-  
GOZOTEGIA  
KROASANTEGIA  
"JANARI  
PRESTATUAK"

### Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24  
Tfnoa: 79 19 71

### INDUSTRIA HORNIKUNTZAK URKULU, S.A.

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66



Zenbaki

Aholkularitza

### DOIKALSE

Elektroerosioa  
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

### EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

### GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

Basabe Industrialdea  
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



## Juan Ramon Arana zenari 4. Memoriala

Urriaren 22an ospatuko da Juan Ramon Arana 4. memoriala. Aurtengo urterako gainera hiri lasterketa antolatuta da. Kategoria desberdinek parte hartuko dute, infantil, kadete, junior, senior eta beteranoak, bai emakumezko eta bai gizonezkoek. Bi ibilbide egongo dira, bata, 770 m.ko luzera izango du eta besteak 2.040 metrotakoa.

Sari garrantzitsuak izango dira: Lehenengo gizonezkoarentzat: 60.000 pezeta eta trofeoa; 2. 50.000 pta eta trofeoa; 3. 40.000 pta eta trofeoa; 4. 30.000; 5. 20.000; 6. 10.000 eta 7tik-10era bitartean sailkatzen direnak, 5.000 pezeta.

Emakuzkoetan barriz sariak ondo-

rengoak dira: Lgo. 30.000 pta eta trofeoa; 2. 20.000 pta eta trofeoa; 3. 15.000 pta eta trofeoa eta 4. eta 5. postuentzat 5.000 pta. Sari hauez gain, kamiseta bana oparituko zaie parte-hartzaile guztiei eta kirol materiala erosteko baleak zozketatuko dira. Kategoria bakoitzean lehenengo sailkatzen den atxabaltarrantzat ere trofeoa egongo da.

Lasterketan edozeinek parte hartu dezake. Eta izena emateko egun horretan bertan egin beharko da Loramendiko lokalean; probak hasi baino 15 minutu lehenago itxiko da apuntatzeko epea. Kontutan izan lasterketa goizeko 11etan hasiko dela.



Hiri lasterketa Durana kalean hasi eta bukatuko da.

## Auzo-alkateak aukeratuta daude

Irailean datorren lau urtetarako auzo-alkateen aukeraketa egin zen. Esan behar da auzotarren partetik oso partizipazio maila altua izan zela.

Alkate aukeraketa aurre-eramatea auzotarren esku uzten da. Bertan, 18 urtetik gorako edozein izan daiteke kandidatua eta adin hone-tatik gorako edozeinek botatu dezake.

Emaitzak aztertu ondoren honela gelditu zen Aretxabaletako 9 auzoetako alkatetzat: Larrino auzoko alkate: Jose Urkia; Azatzakoa: Jose Luis Altuna; Koruetakoa: Angel Mari Iturbe; Arientzakoa: Julen Abasolo; Orokoa: Ramon Oxinaga; Arkarazakoa: Alberto Mondragon; Apotzaetxebarrikoa: Migel Arenaza; Galartzakoa: Luis Gastañaga eta Izurietakoa: Alberto Etxebarria.


Datorren lau urtetarako hauek izango dira beraz auzo desberdinetako alkateak.

## Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



## ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE

Tfnoa: 77 11 30

## MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45  
ESKORIATZA

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79



KELER



El León

## FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean  
Tfnoa: 79 60 65



# Hainbat aldaketa autobus zerbitzuan

□ Gasteizera eta Donostiara doazen eta bertatik datozen autobusak erdiko geltokietan bakarrik gelditzen dira

□ Oñatirako autobusak gehitu egin dira

Azken egunotan autobusen ordutegia dela eta ez dela marea-tuta gabilta herritarrok. Autobusik ez dela goiko paradan gelditzen eta horrelako komentarioak entzun daitezke.

Egia esan, Pesa autobus enpresak aldaketa batzuk egin ditu orain arteko antolaketari dagokionez eta irailaren 25etik martxan da antolaketa barria.

Alde batetik, Donostiara eta Gasteizera doazen eta hiri haue-tatik datozen autobusak erdiko geltokietan bakarrik geratzen dira, (Beroa lantegia eta Zaharren Egoitza aurrean). Kasu honetan Arrasaten ere berdin gertatzen da, Gasteiztik eta Donostiatik datozen eta hiri haue-tara doazen autobusak erdiko paradan bakarrik

gelditzen dira.

Bestalde, Eskoriatzatik Eibarrera bitarteko ibilbidean autobus urbanoak funtzionatzen du eta kasu honetan autobus gehiago jarri da. Eskoriatzatik Eibarrera ia orduro dago autobus urbanoa eta hauek lehengo moduan geltoki guztietan gelditzen dira.

Oñatira ere autobus gehiago ipini dira. Lehengo konbinazioak oso txarrak ziren eta askotan Arrasaten autobus aldaketa egin behar izaten zen. Orain barriz, Aretxabaletatik Oñatirako zuzeneko ibilbidea egingo dute autobusek eta sarriago gainera.

Horrela, Atxabaltatik Arrasatera eta Eskoriatzara astegunetan orduerdiro egongo da autobusa. Arrasaterako azken autobusa

21,55etan izango da eta Eskoriatzara barriz 21,30etan.

Arrasatetik Bilbora barriz, egunean lau aldiz urtengo dute autobusek, goizean 7,30etan eta 9,30etan, eguerdian 2,45etan eta arratsaldean 7,15etan. Ibilbide honetan Durangotik Bilborako bidea autopistaz egingo da.

Aurtengo autobus antolaketak horrela funtzionatuko du beraz. Behean duzuen taula horretan Aretxabaletatik beste herrietara dauden autobus konbinazioen barri ematen da.

Honez gain, edozein informazio gura izan ezkerro Arrasateko Pesa zerbitzura deitu dezakezue, 79 14 19 telefonora. Bertan, edozein kezka argituko dizuete.

ARETXABALETATIK .....RA DOAZEN AUTOBUSEN IRTEERA ORDUTEGIA/ HORARIO DE AUTOBUSES DESDE ARETXABALETA A .....

ARRASATE		ESKORIATZA		BERGARA		EIBAR		VITORIA-GASTEIZ		OÑATI		DONOSTIA	
6,55 1	17,25 123	6,35 1	18,00 123	6,55 1	13,55 12	6,55 1	14,55 123	7,30 12	15,30 123	7,25 1	14,25 12	7,10 12	13,10 12
7,10 12	17,55 123	7,05 1	18,30 123	7,10 12	14,55 123	7,55 12	15,10 12	8,30 12	16,30 123	8,25 12	15,25 123	8,20 12	14,20 12
7,25 1	18,10 123	7,30 12	18,30 123	7,55 12	15,10 12	8,55 1	15,55 123	9,30 123	17,30 123	9,25 1	16,25 123	9,40 3	19,10 123
7,55 12	18,25 123	7,30 12	19,00 123	8,55 1	15,55 123	9,10 123	16,55 123	10,30 12	18,30 123	10,25 12	17,25 123		
8,10 12	18,55 123	8,00 12	19,30 123	9,10 123	16,55 123	9,55 12	17,10 123	11,30 123	19,30 123	11,25 1	18,25 123		
8,25 12	19,10 123	8,30 12	19,30 123	9,40 3	17,10 123	10,55 1	17,55 123	12,30 1	19,30 123	12,25 12	19,25 123		
8,55 1	19,10 3	8,30 1	19,30 123	9,55 12	17,55 123	11,10 3	18,55 123	13,30 12	21,30 123	13,25 1	20,25 123		
9,10 123	19,25 123	9,00 1	20,00 123	10,55 1	18,55 123	11,55 12	19,10 3	14,30 123					
9,25 1	19,55 123	9,30 123	20,30 123	11,10 3	19,10 3	12,55 1	19,55 123						
9,40 3	20,10 123	9,30 12	21,00 123	11,55 12	19,10 123	13,10 123	21,10 123						
9,55 12	20,25 123	10,00 12	21,30 123	12,55 1	19,55 123	13,55 12							
10,10 12	20,55 123	10,30 12		13,10 123	20,10 123								
10,25 12	21,10 123	10,30 1		13,10 12	21,10 123								
10,55 1	21,55 123	11,00 1											
11,10 3		11,30 123											
11,25 1		11,30 12											
11,55 12		12,00 12											
12,10 12		12,30 12											
12,25 12		12,30 1											
12,55 1		13,00 1											
13,10 123		13,30 12											
13,10 12		13,30 12											
13,25 1		14,00 12											
13,55 12		14,30 123											
14,10 12		14,30 12											
14,25 12		15,00 123											
14,55 123		15,30 123											
15,10 12		15,30 123											
15,25 123		16,00 123											
15,55 123		16,30 123											
16,10 123		16,30 123											
16,25 123		17,00 123											
16,55 123		17,30 123											
17,10 123		17,30 123											

1. LANEGUNETAN ASTELEHENETIK OSTIRALERARTE  
1. DE LUNES A VIERNES LABORABLE

2. LANEGUN DIREN LARUNBATETAN  
2. SABADOS LABORABLES

3. IGANDE ETA JAIEGUNETAN  
3. DOMINGOS Y FESTIVOS

\* ARRASATETIK  
\* DESDE ARRASATE



# Sano eta pozik bueltatu dira



Ongi etorri beroa egin zitzaizen Felix, Alberto eta Fernandori

Ongi etorri polita egin zitzaizen Felix, Alberto eta Fernandori pasatu den domekan. Murruxiko aurrekaldea lagunez bete zen hiru mendigoizaleei harrera beroa egiteko asmoz. Ez zen ixilunerik egon, etxafleruek, txistulariek, dantzariak, Pako Iriondo Mendi Federazioko presidentearen eta Felixen berbek bete zuten ekitaldia.

Txikiendako idolo bihurtu dira gure mendizaleak, ikusi besterik ez zegoen haien begi eta aurpegieta.

## Lhotse hegoaldeko mendia

Hiru mendigoizaleak ondo bueltatu dira etxera, zorion betean. Izan ere, zortzi milatik gorako bi mendi zapaltzea ez da nolanhiko azaina. Felix eta Albertok 16 egun behar izan dituzte Cho Oyu eta

Lhotsera igotzeko. Cho Oyu (8.201 m.) irailaren 11an estilo alpinoan igo zuten eta Lhotse (8.516 m) barriz irailaren 27an, hau ere estilo alpinoan. Azken honetara Ontxu zepa lagun zutela igo ziren. Lhotse munduko laugarren mendirik altuena da. Bere izenak Everest mendiarekin zerikusia du. Everestetik hegoaldera gelditzen den mendia da eta horregatik Lhotsek "hegoaldeko mendia" esan gura du. Felix eta Alberto estatutik lehenak izan dira mendi honetara igotzen.

Albertok aurtengo esperientzia aurrekoetatik desberdina izan dela esan digu, "estiloan egon dira desberdintasunak. Orain artean modu tradizionalan aritu gara mendiak igotzerako orduan. Hau da, aldeztu aurretik ekipatu, ekipatze lanetan aklimatatu eta gero tontorreko

saioa egin. Aurten barriz, beste bailara batean aklimatatu gara lehenengo, gero mendira pasatu gara aldeztu aurretik inongo ekipamentu lanik egin gabe; eta azkenean material guztia bizkarrean hartu eta tontorrerako saioa egin dugu".

Zailtasun haundienak eguraldiak jarri dizkie, "Oso eguraldi txarra eduki dugu baina zortea izan dugu egunak aukeratzeko orduan. Bestalde zailtasun teknikorik ez dugu izan, hala ere, gogorra izan da." Horrela kontatzen zigun Albertok.

Felix eta Alberto mendiak igo dituztenak izan dira, hala ere, beste hirugarren baten laguntza ere ondoan izan dute denbora guztian, Fernando Uribesalgorena hain zuzen ere. Fernando koordinaketa lanetan aritu da Kanpo Basean eta bera izan da Euskadirekin komunikabide harremanak eraman dituenak.

## Kangchenjunga hurrengorako

Dagoeneko bukatu dute aurtengo helburua eta ondo gainera. Orain makina bat komunikabide zoraturako dituzte. Horrelako edozein azainak ekartzen dituen ondorioak dira. Baina Felixek adierazi duenez, beste tontor bat bidean da datorren urterako, Kangchenjunga (8.586 m.) hain zuzen ere. Mendi hau, Martin Zabaletak 1988. urtean igo zuen. Mendizale euskaldunak hainbat alditan igotzen ahalegindu dira baina inongo arrakasta barik. Mendi zaila eta arriskutsua ei da.



## TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETA

## ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

### "ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"  
Tetefonoa: 79 62 80  
ARETXABALETA (GIPUZKOA)





# Paperaren gainean idatzia

Neanderthal-ak haitzuloetako papretak margotzen hasi zirenetik, gizakiak hainbat bide bilatu ditu bere pentsamenduak adierazteko. Egipziarrek **papiroa** asmatu zuten Kristoren aurreko XXI. mende aldera; ondoren Asia aldean **pergaminoa** azaldu zen (K.a. II); eta beranduago, K.a. 105. urtean txinarrek **papera** sortu zuten trapu zaharrak eta masusta-landarearen azala erabiliz. Egurra papera egiteko XVIII. mendetik aurrera bakarrik erabili da.


Papera gure kulturaren oinarria bada ere, bere fabrikazioak izugarri kaltetzen du ekologia: Batetik, lurzoruari kalte handia egiten dioten zuhaitzen (pinuen, eukaliptoen,...) landaketa masiboak bultzatzen ditu. Bestetik, ur eta energia eskaera handia duenez, baliabideak azkar xahutzen ditu. Eta azkenik, nabaria da atmosferan eta errekatatan sortzen duen kutsadura ere. Orain dela gutxi arte, paper fabrikez inguratutik zegoen Oria ibaia, Europako kutsatuena izatera iritsi zen.

## Paper garbiago baten bila

Egurretik datorren paperaren osagai nagusia zelusosa da, eta ur kopuru izugarria erabiltzen eta zikintzen da zelulosa hau aislatzeko. Bestetik, papera zurrizko orduan produktu kloratu oso toxikoak ere erabiltzen dira. Guzti hau ekiditzeko paper era berria azaldu da merkatuan: Paper "garbi" hau errentagarria izan dadin, beharrezkoa du


lehengai ugari jasotzea. Lehengaia paper eta kartoi zaharrek osatzen dute. Aspaldi honetan Aretxabaletako herrian hainbat kontenedore urdin ezarri dira asmo honetarako. Bestalde beharrezkoa da ikastolatan kontenedore bereziak ipintzea, bertan papera izugarri erabiltzen da ere eta. Azkenik kartoi ugari erabiltzen den lantegietan ere jarri ei dituzte kontenedoreak. Bidea badugu, beraz gure ardura da orain gure egunkari zaharrak eta propaganda paperak berauetara botatzea. **Aretxagazeta** hau irakurtzen duzuenen ere badakizue ba zer egin. Bestalde beharrezkoa da paper "garbi" hauek erabiltzea ere. Hiru motatako paperak ditugu gure artean: **Paper birziklatua:** Alemaniar erakoa, % 100ean berreskuraturiko paper zaharrez eginikoa; **Paper ekologikoa:** austriar edo ingles erakoa, hondakin organikoz eta berreskuraturiko paperez sortua; eta azkenik, ez hain ezaguna, **algodoizko papera.**

Paper berreskuratua erabiliz lorturiko paperaren fabrikazio-kostua, egurretik ateratakoarena baino merkeagoa da, bestalde (ikus taula), eta kutsadura ere askoz ere bajuagoa da, ez bait du zelulosa aislatu beharrik sustantzia toxikoen bidez, eta horretaz gain, papera zurrizko produktu kloratuak ere baztertu eginten dira.

 Mikel Arroiabe

## Produzitzen den paper tonelada bakoitzeko, energia eta ur gastua:

	Energia gastua (Tn Tep)	Ur gastua (m <sup>3</sup> )
Egurretik hasita	0,4-0,7	280-450
Berreskuratutako paperetik hasita	0,15-0,25	2



LOGOPEDIA  
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

MAITE  
.....  
ILEAPAINDEGIA  
.....

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05  
ARETXABALETA

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

ZUHAITZ  
jatetxea



ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia


Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
☎ 79 48 77 ARRASATE



# Akordeoia lagun

Gure herrian gazte artistarik badugula ezin ukatu. Horren adierazgarri dira Aretxabaletako orkestran jotzen duten akordeoilari gazteak. Bi orkestra ditugu herrian, bata Aretxabaletako akordeoi orkestra eta bestea Aretxabaletako gaztetxoen orkestra. Lehena 1993ko urtean sortu zen eta urte horretako urrian bertan eskaini zuen lehenengo kontzertua. Gaztetxoen orkestra barriz, urte bat beranduago sortu zen 1994ko maiatzean. Gaur egun bi orkestretan 46 gaztek parte hartzen dute.



*Aretxabaletako akordeoi orkestraren zuzendaria Juan Jose Orobengoa da*

Egia esan, bi taldeak ez dira hala nola sortu, bi maixu garrantzitsuren elkarlana eta gogoia tartekatuta da taldearen sorreran eta bidean, Luis Mari Elkorobarrutia eta Juan Jose Orobengoa hain zuzen ere. Elkarlan honen adierazgarri da, maixu hauen ikasleak bi orkestretan banatuta egotea. Luis Mari, gaztetxoen akordeoi orkestrako zuzendaria da. Juan Jose Orobengoa barriz, nagusien akordeoi orkestrarena. Lan haundia da bi maixu hauek orain artean burutu dutena. Horren barri garbi erakutsi ziguten San Migeletan gure herrian eman zuten kontzertuan.

Hasiera batetan Luis Mari eta Juan Josek ez zuten orkestrarik osatzeko inongo asmorik baina ikasleak bakarka maila haundia erakutsi dutenez orkestra osatzeko momentu egokia izan zitekeela

pentsatu zuten. Hasierako esperientzia gogorra izan zela deskribatu du Luis Mari. *“Umeak asko kexatzen ziren, ordu asko sartzen zituztela eta. Baina orain eurak ere motibatuago daudenez, kontzertu bat emateko orduak sartu behar direna hobeto ulertzen dute.”*

Hasierako helburuetariko bat, gazte hauen akordeoi formazioa osatzea zen eta aldi berean euren artean giro musikala sortzea. Beti ere, musika eginez ondo pasatzeko asmoz.

Aurrean aipatutako kriterio honekin sortu ziren bi orkestrak. *“Gure nahia ahal den neurrian gaztetxoen akordeoi orkestra, nagusien orkestraren harrobia*

*izatea da baina aldi berean orkestra bakoitzak bere autonomia gordetzen du”.* Eta egia esan honen adierazgarri dira bi orkestrek orain artean Euskal Herri mailan eta hemendik kanpora ere, eskaini dituzten kontzertuak.

## Lan gogorra

Garbi dago horrelako emanaldi bat emateko lana gogor egin beharra dagoela. *“Umeak motibatu egin behar dira eta hau adin horretan ez da erraza. Urteerak antolatu eta zenbait lekutan kontzertuak eskainiaz lortu dugu gazteengan motibazioa gehitzea. Metak jartzen joan gara. Umeak askoz motibatuago etorten dira eta gainera urteeratan ondo pasatzen*





Juan Jose eta Luis Mari bi orkestrerako zuzendariak

dute". Horrela adierazi digute Luis Mari eta Juan Josek.

Baina kontzertu bat eskaini aurretik, ze pausu jarraitu behar diren ere galdetu diegu eta honela erantzun digute: *"lehenengo obra egokiak aukeratu behar dira eta behar diren konponketak egin; gero ikasleek banaka egin beharreko lana etorriko litzateke. Ikasle bakoitzari harreta berezia eskaini behar zaio. Bakarkako lan honen ostean, taldekakoa dator, hau da, bakoitzak bere ahotsekoekin entsaiatzea. Azkenengo pausua entsaio orokorra izango litzateke. Entsaio orokorra astean behin egiten da baina kontzertu aurreko astean egunero".* Hau izango litzateke taldeko ekintza guztietan eta edozein kontzertu eman aurretik euren zuzendariak normalean egiten duen lana.

Baina dena ez da hemen bukatzen, ikasle bakoitzak bere mailara egokitutako hezkuntza musikala jasotzen du eta.

Orkestrak bazkideen artean aukeratutako zuzendaritza batzordearen bidez funtzionatzen du. Gaur egun 80 bat bazkide dira.

Aurtengo urterako bi orkestrerarte 15-20 bat kontzertu ematea

entsatzen dute. Eta honekin batera musika maila igotzea gura dutenez, materiala gehitu beharko dute; horrela orkestrari bi tinbal kromatiko eta aplikaziodun akordeoi baxua gehituko liekete.

### Emanaldietarako tokirik ez

Dena bete-betean eta ondo doakiela ematen duen arren, kezka garrantzitsu bat ere azaltzen dute. *"Herriko zinema itxita egoteak eta herrian inon kontzerturik ezin ematea kezkgarria da. Ez orkestrarentzat bakarrik, izan ere*

*herrian talde musikalak asko gehitzen ari dira (2 akordeoi orkestra, banda, korala, e.a) eta entsaio eta emanaldietarako leku baten beharra dugu".*

Bukatzeko, bi zuzendariak, laguntza eskaini dien lagun bat eskertu gabe ez dute bukatu gura izan. Juan Ramon Elkoro, akordeoi orkestraren bultzatzaileetarikoa bat izan da eta bere laguntza oso garrantzitsua izan da taldearen martxarako.

### Akordeoi instrumentu polifasetikoa

Urteetan zehar instrumentu folkloriko moduan kontzideratua izan da akordeoia, berbenetan, lagunartean, e.a. jotzeko. Baina denborarekin eboluzio txiki bat izan du. Fisikoki akzesorio gehiago sartu zaizkio eta honen ondorioz foklorearen ez den beste musika batzuk ere jo daitezke, esaterako, pianoko, organoko, e.a. partiturak.


Arlo desberdin asko hartu ditu akordeoiak eta eboluzio honen ostean, konpositore asko akordeoiarentzako konposatzen ari dira. Gaur egun musika mota asko jo daitezke instrumentu honekin eta horren erakusgarri dira Aretxabaleako bi orkestrak.

***"Gazteek maila altua dute musikan. Baina maila hau lortzeko ilusioa, eguneroko lana, pazientzia eta gurasoen laguntza behar beharrezkoak izan dira"***



22 lagunek osatzen dute gaztetxoaren akordeoi orkestra, zuzendaria Luis Mari Elkorobarrutia da





# Eskubaloi talde barria gure herrian

Azken hilabeteotan Atxabaltan eskubaloi taldea sortu behar zenaren txutxumutxuak entzungo zenituzten. Baina egia ete da? Bai, egia da. Eta dagoeneko gure herriak Aretxabaleta A. Eskubaloi deitzen den taldea du.

Egia esan, ez da guztion belarrietara heldu den berria. Orain ordea, ideia hori zelan aurrera eraman den eta arrazoiak zeintzuk izan diren argitzera gatoz.

Gure herrian eskubaloi taldea sortzearen ideia, gure bailarako eskubaloi talde bakarrari, Arrasate Eskubaloi taldea hain zuzen ere, lotuta zeuden Aretxabaletako sozio eta enpresa txiki batzutatik etorri da.

Pertsona hauek, Aretxabaletan eskubaloi talde bat sortzeko zenbait arrazoi ikusten zituzten.

Alde batetik, Almen ikastolan betidanik jokatu izan den kirola dugu eskubaloia. Infantil mailako taldeak ditu Almenek. Talde hauek jubenil mailara pasatzen direnean ez dute normalean jokatzeko jarraitzeko aukera izaten. Arrasate Eskubaloi taldeak, lau talde izan arren, ezin ditu jokalaririk hartu eta. Horregatik, kirol hau praktikatzen duten jokalariei jokatzeko jarraitzeko aukera eman behar zaiela pentsatu

zuten. Bestetik, Aretxabaletan betidanik egon da eskubaloian jokatzeko afizioa eta hau berreskuratu gura da, gure herriko gazteei beste kirol batean jokatzeko aukera eskainiz.

Horrela, Arrasate Eskubaloi taldeak, bertan sartuta zeuden Aretxabaletako sozio eta enpresei, gure herrian eskubaloi talde bat sortzea proposatu zien eta proposamena aurrera atera dute dagoeneko.

Taldearen presentazioa irailaren 23an egin zen. Kiroletxean bi partidu jokatu ziren, Aretxabaleta-Bergara eta Arrasate-Abetxuko. Aretxabaletako eskubaloi taldea, senior mailakoa da eta probintziako ligan jokatu du. Hemendik aurrera beraz, bi domeketatik behin partiduak ikusteko aukera izango dugu kiroletxean. Taldeko presidentea, Mariano Arrieta da eta entrenatzailea barriz, Faustino Gorostiza.

Portasoleko eta San Migeletako jaietan txozna jarri zuten Aretxabaleta Eskubaloi taldeko partaideek. Horrela, bertan batutako dirua, eskubaloi taldeak aurtengo ihardunaldian izango dituen gastuei aurre egiteko erabiliko dute.

Datorren zubian, Zarautzen kontra jokatu du Aretxabaleta A. Eskubaloi taldeak kiroletxean.

## URBALTZ



### TABERNA

Mitarte 21, behea  
Tfnoa: 79 79 79  
ARETXABALETA



## J. ALTUNA Zurgindegia

Sukalderako  
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3  
☎ 79 72 55 Aretxabaleta

## Izozkitekiki-Gozotegi IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA

## GUREA TABERNA JATETXEA

Durana Kalea  
Tfnoa: 79 20 64

## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta

## IZOTZ TABERNA

Mitarte, 16  
☎ 79 73 65

## ANGELINES



### Autozerbitzua

Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



## HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

## GEMES

EPILATERM  
Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta



### Lurrindegia Opari-denda


Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



# Bi atxabaltar Maltzaga-Urbinan

EBA ligan bigarren urtea beteko duen Maltzaga-Urbinan jokatuko dute Andres Gutierrez eta Iagoba Gamarrak. Andresek 22 urte ditu eta Iagobak barriz, 18. Biak txiki-txikitatik hasi ziren saskibaloian jokatzen. Andres 12 urtekin hasi zen Arrasaten eta Iagoba 9 urtekin Almenen.

Andres titularra da, hegalekoa eta 1,94ko altuera du. Iagobak, eskolta lanak egiten ditu eta 1,90 altuera du.



Andres eta Iagoba Maltzaga-Urbinako jokalariek dira

• **Zenbat denbora daramazue Maltza-Urbina taldean?**

**Andres:** Bi urte. Urbina-Maltzaga taldea sortu zenetik.

**Iagoba:** Ni aurtengo urtean hasi naiz.

• **Gustora zaudete talde honetan?**

**A:** Bai, orain artean behintzat gustora nago. Tenporadako lehen bi partiduak galdu egin ditugu eta taldea ez dago bere onenean. Presio handia dago baina aurrera egin beharko dugu.

**I:** Bai gustora nago baina hasiera txarra izan dugu eta ambiente arraro xamarra dago. Baina aurrera aterako dugu.

• **Zein da zuen helburua?**

**A:** Pertsonalki aurten tenporaldi on bat egitea da nire asmoa eta EBA ligako jokalaria on bat izatea. ACBn jokatzea saila izango litzateke baina aukera izango banu aurrera egingo nuke. Gainera, Taugres taldearekin lotura bat dugunez, EBA ligan ondo jokatzen badut aukera gehiago izango dut gora igotzeko.

**I:** Beno... oraindik 18 urte izanik

gauza asko ditut ikasteko. Lehenengo esperientzia hartu behar dut gero ahalik eta gorenaren heltzeko.

• **Eta taldearen helburua?**

**I:** Direktibatik, ahalik eta gorenaren egotea eskatzen digute. Hori oso zaila dela badakigu baina hortan ahalegindu behar gara. Printzipioz gure asmoa Play off-eko taldean sartzea da; talde honetan lehenengo zortzi taldeak sartzen dira eta behin hemen sartu eta gero poliki poliki aurrera jotzea.

• **Gogorak dira entrenamentuak?**

**A:** Bai, gogorak dira. Abuztuan hasi ginen eta opor gabe gelditu gara. Goiz eta arratsalde aritu gara entrenatzen. Orain arratsalde bakarrik entrenatzen dugu goizez ikasten ari garelako.

**I:** Egunero egunero bi ordu entrenatzen dugu. Ni ere goizez

ikasten ari naizenez, arratsaldez bakarrik entrenatzen dut. Gero astebukaeretan partiduak izaten ditugu. Orain arte ez gara oso urrutira atera baina laster kanpora urtetea tokatuko zaigu, Galiziara, e.a. eta hori gogorragoa izango da.

• **Gogorra da ikasketak eta saskibaloia batera eramatea?**

**A:** Gogorra da bai. Nik urtebete pasatu dut horrela eta biak aurrera ateratzea lortu dut. Hori bai, beste gauza asko alde batera utzi beharra dago.

**I:** Duela bi aste hasi nintzen klasean eta oso gogorra egin zait. Eguna oso nekatuta bukatzen dut.

• **Zelan ikusten duzue Taugresekin duzuen lotura?**

**A:** Istilu handia dago gai horren inguruan. Kanpoko jendeak oso gaizki ikusten du. Momentu honetan taldean 13 lagun gaude. Hoietatik 2 bakarrik dira Arrasatekoak. Gu biok Atxabaltakoak eta beste guztiak kanpokoak dira, Kanariasekoak, Ameriketakoak, Madrilekoak, Gasteizekoak, e.a. Lotura honek herriko harrobiko jokalariei maila batetik gora jokatzeke aukera kentzen die.

• **Zelan ikusten duzue taldea?**

**I:** Bi partidu jokatu ditugu orain arte eta biak galdu ditugu. Gauzak txarto doazenean dena kritikatu egiten da, eta momentu honetan benetako animoak eta laguntza behar ditugu. Baina oraindik hasi besterik ez gara egin eta hemendik maitzera bitartean gauzak asko aldatu daitezke. Zelan bukatzen dugun ikusi beharko da.



# Gazteak kirolean blai

Gauza ona da umeek eskola ostean kirola egitea. Beraien aisi-aldia modu egoki batetan beteta izatea. Gorputzari eskola ez den beste esperientzia bat erakustea, azken finean norberaren heziketan laguntzen du kirola egiteak, lagunekin taldean jokatzen ikasi, gimnasia egin, koordinazioa eta erreflexuak landu, e.a.

Arlo honetan, eskolatik kanpoko kirola antolatzen aritzen diren pertsonen lana eskertzekoa da. Asteaz zehar eta astebukaeretan, horrenbeste neska-mutiko mugitzen dituen antolaketa batetaz dihardugu, kirol-extraeskolarra hain zuzen ere. Neska-mutikoek kirol desberdinak praktikatzeko aukera dute, saskibaloia, futbola, eskubaloia, mendia, igeriketa, atletismoa, e.a.

Aurtengo urterako ere jadanik dena prest dago. Urriaren bukaera aldera hasiko da inguruko eskoletan, Almenen, Kurtzebarrin eta Luis Eceizan eskolatik kanpoko kirola martxan. Neska-mutiko askok eman du izena eta pozteko datuak dira. Kurtzebarri eskolan esaterako, 8 urtetatik 14 urtetara bitarteko 120 neska-mutiko daude, Luis Eceizan 90 eta Almenen 200tik gora.

Umeak oso gustoko du kirola egitea baina arlo honetan gurasoen partizipazioa ere garrantzizkoa da. Umeen gurasoek ere laguntza eskaini behar dute, horrela denon artean antolakuntza hobeago batekin lan egiteko.



*Eskolatik kanpoko kirolak gazte asko mugitzen ditu gure bailaran. Umeen heziketa eta garapenean zati garrantzitsua osatzen du kirolak.*

## MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

## ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

## Martín

RELOJERIA - BIXITATEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

## OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

## Artano Taberna

Herriko Enparantza  
ARETXABALETA

## ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 32 34


## SHOT!

grabaciones

ARRASATE

SHOT! Grabaketak S.L.

Araba Etorbidea, 3-2. solairua  
Eskatu Pabiloia  
☎ 943-79 37 51



Gipuzkoa





**H**aize hegoa/gau epelaren leloa bururatu eta udazkenaren koloreak zuhaitzetan nola eskegiten diren ikusten ditugun sasoiarekin bat, eskolara itzultzeko ordua ere heldu da.

Guraso gehienek (denek?) desiatzen zeuden. Ez haurrengatik, eurengatik baino. Hau tormentua! Udara osoan umeekin egon behar!. Eta azkenean eskolara. Hau pakea!

Gero etorriko dira erretolikak. Mastru-maistrak opor gehiegi dituztela... etab. Eta mementuan alderantzizko argudioa: Bah! Eskolan ez dute ezer ikasten! Oingo mastruok, erakusten daue ba ezer?

Logikoena - gure iritzi apalean- (Jah!) zera izango litzateke, hots, maixuek ondo, nahiko eta xuxen irakasten ez dutenez, eta gaur egungo gizartearen erruen sustraiak eskolan daudenez, umeez denbora gehiago pasa beharko lukete gurasoekin eta ez eskolan; neurri berdinean, irakasleek opor eta zubi gehiago hartuko litzukete.

Dena den, gauzak dauden moduan daude, eta seguru asko argazkikoek ez zutela holako eztabaidatarako astirik; orduan, lau reglak, idazketa eta irakurketa lantzen ziren bakar bakarrik, eta kitto!. Ez zen/da/litzateke ideia txarra. Argazkia 1934. urtean aterata dago eskola ondoko eskilaretan.

Lehenengo iladan: Juan Mujika, Jesus Atxa, Esteban Gorroño, S. Ondarra (maixua), Antonio Zubizarreta, Luis Galdos, Joxe Lizarralde.

2. iladan: Pablo Arana, ezezaguna, Pako Altuna, Tomas Gutierrez, Iñaki Zuazabeitia.

3. iladan: Vicente Otero, Pablo Ezeleta, Candido Etxeandia, Ramon Urreta, Gregorio Fernandez, Felipi del Teso, Felix Atxa Elorza, Zarraoa, J.M. Zubizarreta.

4. iladan: Alberto Oianguren, Ramon Antxia, Esteban Zuazabeitia, J. M. Agiriano, Vicente Ondarra, Justino Castro, Joxe Axpe, ezezaguna, Pablo Etxebarria.

5. iladan: Agustin Romaratezabala, Angel Agirre, Santi Uribesalgo, J.M. Galdos, Timoteo Zuazua, Anton Martinez de Agirre, Romualdo Akizu, Andres Otxoa.

6. iladan: Paul Zuazabeitia, ezezaguna, Alejandro Zubizarreta, ezezaguna, Julian Elorza.

Iñaki Urreta Leturiando  
Aitor Antxia Leturia



# Herritarrak telebistan



M.J. Aretxaga

Nire anaia J.J. Madrilerak joan zenetik ez da etxera (bere bihotzera, berak esaten zuen moduan) askotan etorri. Baina, hara be heltzen zaio Aretxagazeta eta irakurten ditu hemengo barriak. Ondo ei dabil bere profesio barrian.

Beste bat ere laster joango zaigu herritik, **Jon Sarasua**, Guatemalara joango da hilabete t'erdirako, orain dela bi urte egon zen lekura. Diskoari azken ikutuak egiten zebiltzanean alde egin digu. Ze diskotaz berbetan nabilen galdetuko duzue. Ba... **Jon** eta **Aitor Sarasuak** disko bat grabatu dute Elkar disketxearekin. Diskoaren izenburua "Fauna txiki bat bertso berritan da". Durangoko azokan jarriko dute salgai. Laster entzuteko moduan izango gara fauna horretako kantuak. Gelditu barik dabilen beste bat **Iñaki Garmendia** da. Diskoaren diseinua egin du, hau bai artista.

Entzutekotik ikustekora pasatuko gara orain. Telebistan ikustekoak ere atxabaltar asko izan dira azken egunotan. Sarasuatarrekin jarraituz, **Oier Sarasuak** Txiskola txiste lehiaketan parte

hartu zuen oriotarrekin. Programan usain txarra utzi zutela eta premiorik gabe itzuli ziren etxera. Baina programa berean beste atxabaltar batek ere parte hartu zuen. Publikotik partehartzea tokatu zitzaion **Aitor Izarzugazari** eta urte osorako aseguratuta dago orain.

Beste atxabaltar batzuk ere ikusi nituen telebistan. **Ane Loidik**, Loramendi liburua eta Aretxabaletako idazkera liburutxoari buruz berbetan urten zuen Andoni Aizpuruak eguerditan aurkezten duen programan. Hala ta be, ez zen Atxabaltako bakarra izan. Gure herriko euskera zelakoa den ikusteko beste herriko batzuk ere agertu ziren. Nagusiak lehenengo, **Dunixe Zuazabeitia** eta **Esteban Gorroño**. Gero barriz, herriko gazteak ere zelan berba egiten zuten ikusi genuen, **Leire Okaranza** eta **Loredi Beitia** izan ziren protagonistak.

ATBn be oraintxe hasi da atxabaltar bat umeentzako programa bat aurkezten. **Eider Otxoa** dugu berau eta Barrelekaixoka da programaren izena. Barriz ere, atxabaltarrak Mondragoe aldean ditugu.

Gaurko kontuari Bukavu proiektuko kontutxo batzuekin eman behar diot bukaera. San Migeletan Hirugarren Mundu Taldeak egin zuen txanpon bilketan 141.000 pezeta atera ziren, lurrean txanponekin hitzak osatuz. 150 metro txanpon lortu ziren guztira. Esaldi eta berbak Afrikako egoerari buruzkoak ziren.

## ARETXAZOKA

### LANA

- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19
- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hirugarren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.

### ETXE BIZITZA

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz jantzita dago. Gaez deitu ondorengo telefonora: 71 40 47

• Bergaran 50 m<sup>2</sup> etxebizitza salgai. Berritua eta oso prezio interesgarrian. Telefonoa 715349 Deitu gaueko 8etatik 10etara bitartean.

• Pertsona bat behar dugu Bilbon pisua konpartitzeko. Interesatuok deitu telefono honetara lehenbailehen. 79 39 10 (Mikel).

• Gasteizen, unibertstatetik gertu, bi ikaslerendako pentsio osoa eskaintzen da. Deitu (945) 26 73 28 telefonora. (Patxi).

• Aretxabaleta edo inguruko herri batetan logela individual baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Deitu 35 13 28 edo 51 78 44 telefonora eta Jabierregatik galdetu.

**Orrialde hone-tako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak e.a.) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**





## Eider Otxoa

## "Egia esan, lotsa ez da nire ahultasunetako bat"



Eider Otxoa, 21 urtetako atxabaltarrak, Arrasate Telebistako "Barrelekaixoka" programa aurkezten du. Bi taldek elkarren kontra diharduten programa da. Hemendik aurrera martitzenetan gaueko 9,30etan ATBn ikusteko aukera izango dugu.

• **Nondik nora Barrelekaixoka izena?**

*Barajuenen afaltzen geunden batean, danok bero-bero geunden, baita gure imaginazioa ere. Eta bertan urten zuen hitzak.*

• **Eta nondik nora zu programa horretan?**

*San Juanetako karpan karaoke programa egin nuen eta ATBko zuzendariak komentatu zidan programa bat aurkeztera animatuko nintzen.*

• **Zenbat saio grabatu dituzu dagoeneko?**

*Bi. Bata neure egunean eta bestea Maritxu osteko zapatuan.*

• **Erreza da kamara aurrean lan egitea?**

*Bai. Garrantzitsuena naturala izatea da. Kamara baten aurrean jartzea publiko aurrean jartzea baino errazagoa da niretzat.*

• **Zuk bakarrik aurkeztuko duzu?**

*Bai, baina bakaukat laguntzaile bat. Sator zulotik zuzenean etorten den Xatur satorra.*

• **Ez dizu lotsa ematen telebistan urtetzeko?**

*Egia esan lotsa ez da nire ahultasunetariko bat.*

• **Zek lotsarazten zaitu?**

*Umm... (pentsetan gelditu da).*

• **Zure afizioak...**

*Leku desberdinak eta jendea ezagutu, aerobic-a.*

• **Ze izatea gustatuko litzaizuke?**

*Kultur suspertzaila eta antzerkigintzan hankatxo bat sartzea...*

• **Gellaon bizi zara, kalea ala baserri ingurua gurago duzu?**

*Erdi bidea hobea izango litzateke, Egileor ingurua. Kotxerik hartu behar ez izatea eta eguzkia hartzeko kanpora urten daitekeen toki bat.*

• **Zure logelatik itsasoa ala mendia ikustea gustatuko litzaizuke?**

*Azpian itsasoa duen mendi bat eukiko banu edarto. Baina daukatenarekin konformatzen naiz.*

• **Gaur bizi ala biharkoan ere pentsatu?**

*Carpe diem.*

• **Igo duzun mendirik altuena?**


*Pirineotako Alano mendia. 2000 m. inguru zituen.*

• **Zure mutilari ze eskatuko zenioke?**

*Lehenengo euki egin behar eta gero gerokoak.*

• **Lan egitea ala ikastea gurago?**

*Al izan ezkerro bata bez. Baina 21 urtekin norbere ditua izatea onena.*



**Mila Zabaleta** dugu aurreko alean saritu suertatu zena.

*Ez galdu aukera*

Oraingo honetan beheko galdera ondo erantzun eta saritu suertatzen denak, Urkiola argazki dendan norberak gura duen argazkia haundituko diote, marko eta guzti. Beraz, aukera ona duzu edozein argazki neurri haunditan markoan jartzeko. Kontutan izan bazkideek bakarrik dutela lehiaketa honetan parte hartzeko aukera. Ea ba, animatu eta bidali aguro erantzuna.

FOTO

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

**Z**ein atxabaltarrek aurkezten du Barrelekaixoka programa?

\*Aurreko aleko erantzuna 12. orrialdean zen.

Erantzuna: .....


Izena: .....

Kalea: .....

Tfnoa: .....



**ARRASATE**



**Urriak 12**

**UDALAITZ EGUNA**

Goizeko 11etan meza. Eguraldi txarra egin ezkeru Udalako elizan izango da meza 12etan.

**ZINEA**

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian zinea. "Fresh" filmea. Sarrera 350 pezeta, gazte txartelakin 300 pezeta.

**Urriak 17 martizena**

**KANTU ETA PIANO ERREZITALDIA**

Arratsaldeko 8etan Amaia Antzokian **Kantu eta piano** errezitaldia.

**Urriak 19 eguena**

**ZINEA**

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian, "Un lugar en el mundo" filmea. Sarrera 350 pezeta eta gazte txartelarekin 300 pezeta.

**Urriak 22 domeka**

**GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETAKO SAIOA**


Amaia Antzokian izango da.

**Urriak 26 eguena**

**ZINEA**

Gaueko 9,30etan "Criaturas Celestiales" filmea. Amaia Antzokian izango da gaueko 9,30etan.

**ESKORIATZA**




**Urriak 22**

**MOUNTAIN BIKE URTEERA**

Eskoriatzako Udalak antolatuta, goizeko 9,30etan plazatik urtenda, Mountain Bike ibilaldia egingo da. Edozeinek parte hartu dezake eta inkripzioa 1000 pezeta izango da. Partehartzaile guztiek opari bana jasoko dute eta honez gain mountain bike bat zozketatutako da.

**BERGARA**



**Urriak 12**

**ELOSUKO MENDI FERIA**

**Urriak 22 domeka**

**UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**

Nobedades Aretoan eguerdiko 12,30etan .

**Urriak 27 eguakotxa**


**KONTZERTUA**

Finlandiako Kuartettilaulajat abesbatzaren kontzertua. Mariaren lagundiko elizan, arratsaldeko 8etan.

**Urriak 27 azaroak 19**

**ERAKUSKETA**

Urriaren 27tik azaroaren 19ra "Ondarea berreskuratzen 1992-95" erakusketa. Kultur Etxean izango da.



**EGUZKIGRAF**  
 Inprimategia  
 Aldizkariak  
 Inpresokak  
 Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
 Tfnoa: 943- 79 18 44      Faxe: 943- 79 29 41

**ZARAIA  
 TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**

*Okindegia - Gozategia  
 Panaderia - Pasteleria*

**Aretxabaleta**  
 Mitarta, 1 - Tfno. 77 00 81  
 Aretxabaleta  
 Obrador Propio

**PAGALDAI**  
 Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
 ARETXABALETA



ARETXABALETA



Urriak 15 domeka

**NAFARROA OINEZ 95**

Tuteran egingo da aurten. **LORAMENDI** Elkarteak autobusa antolatuko du egun honetarako eta apuntatzeko azken epea urriaren 11 da, Loramendiko lokalean.

**UDA-ZESTOA**

**UDA**ko preferente taldeak **Zestoarren** kontra jokatu du partidua.

**ARETXABALETA A. ESKUBALOI-ZARAUZ**

**Aretxabaletako eskubaloi** taldeak **Zarauzko** eskubaloi taldearen aurka neurtuko ditu indarrak datorren domekan eguerdian Aretxabaletako kiroltxean.

Urriak 21 zapatua


**ZARIAIA MENDI TALDEA**

"**Mendia berez garbia**" eguna ospatuko dute Zariaia Mendi Taldekoek.

Urriak 22 domeka

**JUAN RAMON ARANA MEMORIALA**

Juan Ramon Arana zenaren omenez **lasterketa** egingo da Aretxabaletan. Lasterketak urteera eta helmuga Durana kalean izango ditu. Kategoria desberdinak egongo dira, bai emakumezko eta bai gizonezkoetan. Informazio gehiago hamabostean behinean.



**Arabako odol bankukoak** hemen izan genituen urriaren 2 eta 9an. Hilaren 16an ere astelehenean hemen izango dira ostera. Beraz, odola eman gura duzuenok **Aretxabaletako osasun zentrura** jo behar duzue **arratsaldeko 4,30etatik 8etara** bitartean.

Urriaren 14an 71. urtean jaiotako kintook **afaria** egingo dute. **Afarira joan gura duzuen guztiok Gurea tabernan** eman behar duzue izena, 1000 pezeta utziaz. **Sorpresarik ere izango da; baina hori bai, apuntatu lehenbailehen.**

BEHARREZKO TELEFONOAK



**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkartea 79 33 99
- SOS Deiak 088

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15  
79 34 28

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87





**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**

Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) .Telefonoa: 79 50 78 ARRASATE